

Circular sobre el Real Decreto-ley 1/2018, de 23 de marzo, por el que se prorroga para 2018 el destino del superávit de las corporaciones locales para inversiones financieramente sostenibles y se modifica el ámbito objetivo de éstas

El BOE nº 73 de 24 de marzo de 2018 publica el Real Decreto Ley 1/2018 que establece la prórroga a 2018 de las reglas especiales de destino del superávit contenido en el artículo 32 de la LOEPSF. Dicha disposición amplía el ámbito de las finalidades a las que se puede destinar el superávit no financiero del ejercicio anterior, o el Remante de Tesorería para Gastos Generales (la menor de las dos cantidades) que se había regulado en la disposición adicional decimosexta del texto refundido de la Ley de Haciendas Locales, por la que se definen las Inversiones Financieramente Sostenibles que pueden financiarse con este recurso.

Las inversiones catalogadas como financieramente sostenibles que se financien mediante la aplicación del Remanente de tesorería del ejercicio anterior no se considerarán gasto computable a efectos de determinar el cumplimiento de la regla de gasto, aunque sí forman parte del cálculo de la regla de estabilidad presupuestaria, por la que se determina la capacidad o necesidad de financiación.

Sin embargo, hay que recordar que las inversiones acogidas al Plan de Infraestructuras Locales (PIL) que se financien con remanente de tesorería no computarán a efectos tanto de la regla de gasto como de la de estabilidad presupuestaria.

A efectos de clarificar las modificaciones introducidas por el Real Decreto Ley en las finalidades de las inversiones que se consideran financieramente sostenibles, se adjunta el texto articulado de la norma, **señalando en color rojo las nuevas finalidades establecidas**. Se ha añadido una tabla comparativa con la estructura presupuestaria aplicable a las entidades locales de Navarra contenida en el Decreto Foral 234/2015, que si bien es muy similar a

Zirkularra martxoaren 23ko 1/2018 Errege Lege Dekretuari buruz, zeinak 2018ra luzatzen baitu toki udalbatzen superabita finantza aldetik jasangarriak diren inbertsioetan erabiltzeko aukera, eta horien xedearen eremua aldatzen baitu

2018ko 73. EAOak argitara eman du, martxoaren 24an, 1/2015 Errege Lege Dekretua, superabitaren erabilerari buruzko arau bereziak 2018ra luzatzen dituena (LOEPSFren 32. artikulua). Xedapen horrek handitzen du aurreko ekitaldian sortutako superabit ez finantzarioa edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabiltzeko xedeen eremua (bietatik, zenbatekorik txikiena duena). Eremu hori Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarrian erregulatu zen, zeinak zehazten baitu finantza aldetik jasangarri den zer inbertsio finantzatzen ahal den baliabide horrekin.

Finantza aldetik jasangarritzat jotzen diren inbertsioen kasuan, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina aplikatuz finantzatzen badira, ez dira gastu konputagarritzat hartuko gastuaren araua zehazteko orduan, baina bai aurrekontuaren egonkortasunaren arauaren kalkularen partetzat (haren bidez finantzazio gaitasuna edo beharra zehazten da).

Nolanahi ere, gogorarazi behar da Toki Azpiegituren Planari atxikitako inbertsioak, diruzaintzako gerakinaz finantzatzen badira, ez direla konputatuko, ez gastuaren arauaren ondorioetarako, ez aurrekontuaren egonkortasunaren ondorioetarako.

Errege Lege Dekretuak finantzaren aldetik jasangarriak diren inbertsioetan eginiko aldaketak argitzeko asmoz, arauaren testu artikuluduna eransten da, eta **gorriz adierazten dira ezarri diren xede berriak**. Konparazio taula bat erantsi da, Nafarroako toki entitateei aplikatu beharreko aurrekontu egitura dakarrena (234/2015 Foru Dekretuan jasotzen dena); araubide erkidekoaren berdintsua bada ere, baditu aldaketa batzuk.

la de régimen común, presenta ligeras diferencias.

Se incluyen ahora las inversiones destinadas a seguridad y orden público, protección civil y extinción de incendios, atención primaria de servicios sociales, educación, archivos, bibliotecas, equipamientos culturales e instalaciones deportivas. Se especifican las actuaciones para mejorar la accesibilidad de los inmuebles propiedad de las entidades locales. También se amplía el destino de la inversión en vehículos a recogida y tratamiento de residuos, seguridad y orden público, protección civil, y extinción de incendios.

Oraingo honetan, honako inbertsio hauek sartzen dira: segurtasuna eta ordena publikoa, babes zibila eta suteak itzaltzea, gizarte zerbitzuen lehen mailako arreta, hezkuntza, artxiboak, liburutegiak, kultura ekipamenduak eta kirol instalazioak. Toki entitateen jabetzako higiezinetan irisgarritasuna hobetzeko jarduketak ere aipatzen dira. Orobat, honako ibilgailu mota hauetarako handitzen da inbertsioen xedea: hondakinak bildu eta tratatzekoak, segurtasunarenak eta ordena publikoarenak, babes zibilarenak eta suteak itzaltzekoak.